

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak foru-legearen proiektu bat onartu du “Benjamin de Tudela” BHIko bide berriaren finantzaketa errazteko

Hari esker, Tuterako Udalak 1,3 milioirekin finantzatu ahalko du (aurreikusitako inbertsioaren % 85) Toki Azpiegituren Planaren kargura

Asteazkena, 2016.eko maiatzak 18

Nafarroako Gobernuak asteazken honetako bileran foru-legearen proiektu bat onartu du gehienez 1.378.683 euroko aparteko kreditu bat kontsignatzeko, Tuterako ‘Camino del Rape’ izenekoaren egokitzapena finantzatzeko beharrei aurre egiteko asmoz; haren bitartez, Huertas Mayoresen zonaldeak Tarazonako errepidearekin bat egingo du.

Institutuko bide zaharraren eta A-68 autobiararen arteko lotunea ixteak eragindako egoeraren aparteko izaera ikusirik, bide segurtasuneko arrazoiengatik dekretatua, Toki Administrazioak Zuzendaritza Nagusiak foru-legearen proiektu hori sustatu du eta, hari esker, Tuterako Udalak inbertsioaren kostuaren % 85 finantzatu ahalko du 2016ko Toki Inbertsioen Planaren kargura. Gainerakoa (% 15) Erriberako hiriburuko udalaren kargu geratuko da, obrak egikaritzeko erakunde eskuduna dena.

Parlamentuak gaur igorriko zaion foru-legearen proiektua onartzen duenean, Nafarroako Gobernuak eta Tuterako Udalak hitzarmen bat izenpetuko dute, eta bertan diru-laguntza jasotzeko baldintzak finkatuko dira. Haien artean, Tuterako Udalaren uko-egitea agertuko da, obrak Toki Inbertsioen Planaren zenbateko berean jasotzeari buruzkoa.

Horrenbestez, foru-legearen proiektuari esker, udalak bere lehentasunak berrantolatu eta sortutako beharrei erantzun ahalko die Tuterako institututik A-68 autobiarara sartzeko bidea berriki itxi ondoren, Herri Lanen Zuzendaritza Nagusiak egindakoa bide-segurtasuneko arrazoiengatik.

Arrazoiak eta obra

Nafarroako Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak Tuterako institututik A-68 autobian sartzeko bidea berriki itxi egin du bide-segurtasuneko arrazoiengatik (ahalmen handiko bideetara sartzeari buruzko araudia ez betetzea). Horrenbestez, A-68ko balizko puntu arrisksuetako bat desagerrarazi da, Tuteratik pasatzean.

Tuterako Udalak eskatutako irtenbidea eta Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak onartutakoa, honako honetan datza: Camino del Rape izenekoaren egokitzea bide-erabilera izan dezan; hala, Huertas Mayoresen zonaldeak Tarazonako errepidearekin bat egingo du.

Proposamen honekin, eskolako ibilgailuen zirkulazioaren pilatzea saihestuko da hirigunean, eta A-68 autobian bizkor sartuko dira Huertas

Mayores hiribideak Tarazonako errepidearekin bat egingo duen lotunearen bidez.